

ZERDALA TA ZERDALA...

1. Etxe zuri bat, bazterrik ez, ate, leio eta balkorik be ez.
 2. Gela bete aizkora.
 3. Bizarra dauka baiña ez da gizona, zuria da eta ez da izarea, berdea da eta ez da bedarra.
 4. Jaun bat anka baten gainean, eta txapel aundi bat buruan.
 5. Besteak beti jantziten, eta bera beti billuzik.
 6. Urtearen asieran gizen-gizena, eta azkenean argal-argalena.
 7. Kenduaz-kenduaz azi eta aundiago egiten dana.
 8. Zugaitz gorengoak igon, eta errekarik txikiena ezin igaro.
 9. Puntan punta bi, eta atzean zulo bi.
 10. Ikatza bezain baltza, edurra bezain zuria, oiñik ez eta badabil, miiñik ez eta berba egiten ba daki.
 11. Mendirakoan etxera begira, etxerakoan mendira begira.
 12. Mendingoan jaio eta mendian azi, errira etorri eta aginten asi.
 13. Luze da luze sokearen legez, agiñak daukaz otsoak legez.
 14. Beti etxe barruan eta beti bustirik.
 15. Balio ez jateko, eta bera barik ezin bizi.
 16. Sasi artean urratu ez, uretan be busti ez.
 17. Ikusten dot, ondoan dot, ezin arrapatu dot.
 18. Aragia kanpotik, alkondara aragiaren barrutik.
 19. Iturrira edatera joan, eta edan barik etorri.
 20. Ama anka-makur, alaba eder, eta semea dantzari.
1. Arrautzea.— 2. Agoa.—3. Kinpula.—4. Perretxikoa.—5. Jostorratza.— 6. Egutegia.—7. Zuloa.—8. Iñurria.—9. Artatearen makilla.—13. Sasia.—14. Miiña.—15. Dirua.—16. Eguzkiaren argia.—17. Kerizpea.—18. Kandlea.—19. Beiazen arrana.—20. Matsondoa, matsa eta ardaa.

IÑAKI GOIKOETXEA

IPUIN-SARIKETA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

— Ipuñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazke-rea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

— Ipuñak asmaurikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

— Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

-Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi 14.2.^a, eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

-Sariak lau izango dira:

- 1." 40.000 pezeta
- 2.^a 30.000 pezeta
- 3.^a 20.000 pezeta
- 4." 10.000 pezeta

-Ipuñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK